EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA
Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
Giza Baliabideen Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Administración y Servicios
*Dirección de Recursos Humanos*

**EBAZPENA, 2020KO ABUZTUAREN 3KOA, GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA, 28. TXANDAKO ERTZAINENTZAT LANORDUZ KANPOKO EUSKARA HIZKUNTZAREN PRESTAKUNTZAKO 2020-2021 IKASTURTERAKO DEIALDIA EGITEN DUENA.**

Urtarrilaren 17ko 4/2012 Dekretuak, Ertzaintzako langileen lan-baldintzak araupetzeko Akordioa onartzen duenak, 68. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, baita Euskara hizkuntza prestakuntzan parte hartzea eta euskara azterketa ofizialak egitea izena duen P02230.5 prozedurarekin bat etorriz ere, eta apirilaren 2ko 60/2019 Dekretuak aldatzen duen apirilaren 11ko 83/2017 Dekretuak, Segurtasun Sailaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoak, 12. artikuluan ezarritakoaren arabera niri dagozkidan eskumenak gauzatuz, honako hau

**EBAZTEN DUT**

**LEHENENGOA.-** Deialdiaren xede eta esparrua.

1.- Deialdi honen xedea da 2020-2021 ikasturterako lanorduz kanpoko euskara hizkuntzaren prestakuntzarako eskaerak aurkezteko epea deitzea.

2.- Deialdi hau Ertzaintzaren oinarrizko eskalako agente kategorian sartu nahi duten praktiketako langile funtzionarioentzat da (28. txandakoak).

3.- Ikastaroak, aurrez aurrekoak zein autoikaskuntzakoak, HABEk euskaltegi publiko, pribatu homologatu eta autoikaskuntzarako zentroentzako diru-laguntzen deialdietan onartzen dituenak izan beharko dira eta HABEren Erregistroan inskribaturik dauden euskaltegi publiko, pribatu homologatu eta autoikaskuntzarako zentro egingo dira. Onargarriak izango diren moduluak I. eranskinean bilduta daude.

**RESOLUCIÓN DE 3 DE AGOSTO DE 2020, DE LA DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS POR LA QUE SE CONVOCA PARA PERSONAL DE LA 28ª PROMOCIÓN DE LA ERTZAINTZA FORMACIÓN LINGÜÍSTICA EN EUSKERA FUERA DEL HORARIO LABORAL PARA EL CURSO ACADÉMICO 2020-2021.**

De conformidad con las previsiones del artículo 68 del Decreto 4/2012, de 17 de enero, por el que se aprueba el Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal de la Ertzaintza y el procedimiento P02230.5, sobre Acceso a la formación lingüística en euskera y realización de exámenes oficiales de euskera, en ejercicio de las atribuciones que me confiere el artículo 12 del Decreto 83/2017, de 11 de abril, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Seguridad, modificado por el Decreto 60/2019, de 2 de abril,

**RESUELVO**

**PRIMERO.-** Objeto y ámbito de la convocatoria.

1.- Es objeto de la presente convocar periodo para la admisión a formación lingüística en euskera fuera del horario laboral para el curso académico 2020-2021.

2.- La presente convocatoria se dirige a personal funcionario en prácticas aspirante a ingreso en la categoría de agente de la Escala Básica de la Ertzaintza, perteneciente a la 28ª promoción.

3.- Los cursos, tanto los presenciales como los de autoaprendizaje, deberán ser los regulados por HABE en las convocatorias de subvención de los euskaltegis públicos, privados homologados y centros de autoaprendizaje y se desarrollarán en euskaltegis públicos, privados homologados y centros homologados de autoaprendizaje inscritos en el Registro de HABE. Los módulos admisibles están recogidos en el Anexo I.

4.- Aurrez aurreko ikastaroak izango dira: aurrez aurrekoak, aurrez aurreko telematikoak edota eskola batzuk aurrez aurre eta beste batzuk telematikoki eskaintzen dituzten ikastaroak. Baliabidea edozein dela ere, irakasleak eta ikasleak ordutegi zehatz bat bete behar dute elkarreraginean, aurrez aurre zein bideokonferentziaz. Ikasle batzuk ikasgelan egotea eta beste batzuk urrutitik jarraitzea ere gerta liteke.

4.- Curso presencial: cursos presenciales, presenciales telemáticos o cursos con unas clases presenciales y otras telemáticas. Sean cuales sean los medios utilizados, el profesorado y el alumnado deben interactuar manteniendo un horario determinado, bien de forma presencial bien por videoconferencia. También puede haber alumnas/os que estén de modo alterno en clase y otros sigan el curso a distancia.

Autoikaskuntza ikastaroak izango dira: Euskaltegiek zein autoikaskuntza zentroek berariaz lineako ikastaroak emateko dituzten programen bidezko ikastaroak. Nahiz eta tarteka tutoretza edo mintza saioak izan, lan gehiena bakoitzak bere kasa antolatzen du, programa horiek bakarka eta zehaztutako ordutegirik gabe erabilita.

Autoaprendizaje: cursos realizados a través de programas de los euskaltegis y de los centros de aprendizaje específicamente creados para impartir cursos en línea. Aunque también se complemente con sesiones periódicas de tutoría y clases de conversación, el trabajo se realiza individualmente, utilizando estos programas y sin horarios definidos.

5.- Aurrez aurreko ikastaroak egingo dira bakarrik baldin eta osasun-egoera orokorrak horretarako aukera ematen badu, eta betiere osasun-agintaritzak ezarriko duena betez.

5.- Sólo se realizarán cursos presenciales si el estado sanitario general lo permite, y siempre de acuerdo con lo establecido por las autoridades sanitarias.

6.- Hurrengo deialdietarako, betekizuna da Segurtasun Sailak diruz lagundutako aurreko ikastaroan gutxienez %80ko asistentzia edo errendimendu egokia (egindako euskara maila edo azpimaila gainditzea) betetzea.

6.- Para posteriores convocatorias, es requisito contar con una asistencia igual o superior al 80% o un rendimiento satisfactorio (haber superado el subnivel o nivel de euskera cursado) en el curso anterior subvencionado por el Departamento de Seguridad.

**BIGARRENA.-** EUSKARA HIZKUNTZA PRESTAKUNTZAN PARTE HARTZEA ETA EUSKARA AZTERKETA OFIZIALAK EGITEA izenburua duen P02230.5 prozeduraren bitartez arautzen dira ikastaro hauek.

**SEGUNDO.-** Los cursos objeto de la presente convocatoria, se rigen por el procedimiento P02230.5 de ACCESO A FORMACIÓN LINGÜÍSTICA EN EUSKERA Y REALIZACIÓN DE EXAMENES OFICIALES DE EUSKERA.

**HIRUGARRENA.-** Lanorduz kanpo euskara hizkuntza prestakuntzan parte hartzeko eskaerak.

**TERCERO.-** Solicitudes de participación en la formación lingüística en euskera fuera del horario laboral.

1.- Lanorduz kanpo euskara hizkuntza prestakuntzan parte hartzeko, Ebazpen honetako II. eranskinean dagoen S452/3 eskaera bete eta Giza Baliabideen bulegoetan aurkeztu behar da.

1.- Para participar en los cursos de euskera fuera del horario laboral se deberá cumplimentar el impreso S452/3, que figura como Anexo II a esta Resolución, y presentarlo en las oficinas de Recursos Humanos.

2.- Eskaerak aurkezteko epea Ebazpen hau Gureneteko

2.- El plazo de presentación de solicitudes se inicia

atarian argitaratu eta biharamunean hasiko da eta 2020ko irailaren 11n bukatuko da.

al día siguiente de la publicación de la presente Resolución en el portal Gurenet y finaliza el día 11 de septiembre de 2020.

3.- Deialdi honetan matrikula bat eskatu ahal izango da, 2020-2021 ikasturterako.

3.- Se podrán solicitar una matrícula en esta convocatoria, para el curso académico 2020-2021.

**LAUGARRENA .-** Matrikularen prozedura.

1.- Prestakuntza eta Hizkuntza Normalkuntza Atalak zentroetako Giza Baliabideen bulegoen bitartez, eskaera onartua izan duten ikasleei matrikula orria emango die. Matrikula orri horrek bertan azaltzen diren ikastaroetako batean matrikulatzeko balioko du.

2.- Interesdunak ikastaroa hasi baino lehen euskaltegian edota autoikaskuntza zentroan matrikulatu beharko dira. Horretarako ezinbestekoa da bertan matrikula orria aurkeztea.

3.- Langilea azkenean inon matrikulatzen ez bada, ahalik eta lasterren itzuli behar du bere matrikula orria Prestakuntza eta Hizkuntza Normalkuntza Atalera.

4.- Eskolan hasi ondoren, ikasleak ikastaroa behin betiko uzten badu, horren berri eman behar dio berehala idatziz Giza Baliabideen Zuzendaritzako Prestakuntza eta Hizkuntza Normalkuntza Atalari eskola uztea gertatzen den une berean, S443/3 inprimaki normalizatuaren bidez (III. eranskina).

5.- Segurtasun Sailaren eta HABEren arteko kudeaketa gomendioaren bidez prestakuntza ekintzaren jarraipena egin eta langileen matrikulen kostu osoa kudeatuko da.

**CUARTO.-** Procedimiento de matrícula.

1.- La Sección de Formación y Normalización Lingüística, a través de las oficinas de Recursos Humanos de los centros, entregará la hoja de matrícula al alumno o alumna cuya solicitud haya sido admitida. La hoja de matrícula servirá para matricularse únicamente en uno de los cursos que en la misma se detalla.

2.- Los/as interesados/as deberán formalizar solicitud de matrícula en el euskaltegi o en el centro de autoaprendizaje, antes del comienzo del curso, para lo que será indispensable entregar en el centro de formación la hoja de matrícula que se les haya facilitado.

3.- Aquellas alumnas y alumnos que finalmente no se matriculen en ningún curso deberán devolver la hoja de matrícula a la Sección de Formación y Normalización Lingüística lo antes posible.

4.- Si una vez comenzado el curso alguna persona opta por abandonarlo definitivamente, deberá comunicarlo por escrito de forma inmediata a la Sección de Formación y Normalización Lingüística de la Dirección de Recursos Humanos mediante el escrito normalizado S443/3 (Anexo III).

5.- El Departamento de Seguridad realizará el seguimiento de la actividad formativa y tramitará el pago íntegro de las matrículas mediante la encomienda de gestión establecida para tal efecto con HABE.

**BOSGARRENA.-** Ebazpen honek ez du administrazio bidea amaitzen eta interesdunek haren aurka gora jotzeko errekurtsoa jar diezaiokete Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari. Horretarako epea hilabete izango da, ebazpena argitaratzen denetik aurrera,

**QUINTO.-** La presente resolución no pone fin a la vía administrativa y contra la misma los interesados podrán interponer recurso de alzada ante la Viceconsejera de Administración y Servicios en el plazo de un mes a partir de la publicación de

Herri Administrazioen Araubide Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

la presente resolución, conforme a lo previsto en los artículos 121 y 122 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Erandio, 2020ko abuztuaren 3a.

**Izpta.: Miren Karmele Arias Martinez**
**Giza Baliabideen zuzendaria**

# I. ERANSKINA
# IKASTARO-MODULU ONARGARRIAK
# 2020-2021 IKASTURTEA

# ANEXO I
# CURSOS-MÓDULOS ADMISIBLES
# CURSO ACADÉMICO 2020-2021

1.- 2020ko urritik 2021eko ekainera bitarteko ikastaroak:

1.1.- Aurrez aurreko irakaskuntzan: A1 mailan gutxienez 125 irakastordu jarraian eta A2, B1, B2, C1 eta C2 mailetan gutxienez 165 irakastordu jarraian
*(aurrez aurreko ikastaroak, aurrez aurreko telematikoak edota eskola batzuk aurrez aurre eta beste batzuk telematikoak)*

1.2.- Autoikaskuntzan:

- 9 hilabeteko ikastaroa, 190 ordu matrikulako.
- 3 hilabeteko ikastaroa, 75 ordu matrikulako.

*(berariazko lineako ikastaroak, programa berezien bidez)*

1.- Cursos entre octubre de 2020 y junio de 2021:

1.1.- Cursos presenciales, de 125 horas continuas como mínimo en el nivel A1 y 165 horas continuas como mínimo en los niveles A2,B1,B2,C1 y C2.
*(cursos presenciales, presenciales telemáticos o cursos con unas clases presenciales y otras telemáticas)*

1.2.- Cursos de autoaprendizaje:

- Curso de 9 meses, 190 horas por matrícula.
- Curso de 3 meses, 75 horas por matrícula.

*(mediante programas específicamente creados para impartir cursos en línea)*

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA
Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
*Giza Baliabideen Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Administración y Servicios
*Dirección de Recursos Humanos*

**S452/3**

# EUSKARA AZTERKETA OFIZIALEN DIRU-LAGUNTZAK ESKATZEKO ETA ZENTRO HOMOLOGATUETAN EUSKARA IKASTEKO ESKABIDEA
# SOLICITUD DE SUBVENCIÓN DE MATRÍCULAS DE EXÁMENES OFICIALES DE EUSKERA Y DE ACCESO A FORMACIÓN DE EUSKERA EN CENTROS HOMOLOGADOS

| ***Funtzionarioaren datuak*** *Datos del/de la funcionario/a* | ***Espediente zk.*** | |
|---|---|---|
| ***Abizenak*** *Apellidos* | | ***Izena*** *Nombre* |
| ***NAN*** *D.N.I.* | ***Zentroa*** *Centro* | ***Langile Identifikazio Zenbakia*** *Nº de Identificación Personal* |

| **AZTERKETA OFIZIALAK** / EXÁMENES OFICIALES | |
|---|---|
| ***Azterketa mota*** *Tipo de Examen* | *EGA* ☐ *HABE* ☐ *HEO / EOI* ☐ |
| ***Maila*** *Nivel* | |
| ***Zenbatekoa*** *Importe* | |
| ***Erantsitako dokumentazioa*** *Documentación adjuntada* | ☐ ***Azterketaren ordainagiria bera*** *Recibo material del examen* ☐ ***Azterketa egitearen ziurtagiria*** *Justificante de haber realizado el examen* |

| **EUSKARA IKASTAROAK** / CURSOS DE EUSKERA | | |
|---|---|---|
| **Baimen mota** Tipo de autorización | **Lanorduz kanpo** Fuera de horario laboral | ☐ |
| | **Lanordu barruan** Dentro de horario laboral | ☐ **baimena behar du** / requiere autorización |
| **Eskatutako ikastaroa** Curso solicitado | **Euskaltegiaren izena** Nombre del centro | |
| | **Ikastaoaren datak** Fechas del curso | |
| | **Maila** Nivel | |
| | **Ikastaro mota** Tipo de curso | **Lineakoa** / Online ☐ **Aurrez aurrekoa** / Presencial ☐ |
| **Erantsitako dokumentazioa** Documentación adjuntada | **EZ** / NO ☐ **Euskaltegiaren aprobetxamendu txostena** ☐ Informe de aprovechamiento del centro | |

| ***Interesdunaren izenpea*** *Firma del interesado/a* | ***Giza Baliabideen zuzendaritzaren OE (1)*** *VB Dirección de Recursos Humanos (1)* | ***Unitate Burutzaren OE (1)*** *VB Jefatura de Unidad (1)* |
|---|---|---|
| ***Data****/Fecha*..............***LZ****/NP*................. | ***Data*** */ Fecha*........... | ***Data****/Fecha*..............***LZ****/NP*......... |

**(1) Lanordu barruko ikastaroetan**
Para los cursos dentro del horario laboral

**OHARPENA: Datuen babesaren arloan indarrean dagoen araudiaren arabera, Giza Baliabideen Zuzendaritzak datuen tratamenduaren berri ematen du eta horretarako zein datuak bere fitxategietan sartzeko berariazko baimena eskatzen du; datuak galdetu diren helbururako baino ez dira erabiliko. Halaber, baimena eskatzen du langilearen ikas-prozesuaren garapen eta kudeaketatik eratorritako datuak HABEri zein ikasketa-zentro homologatuei eskatzeko, eta euskararen gaitasun-mailak egiaztatzeko proben emaitzak erakunde egiaztatzaileei eskatzeko eta horiek guztiak aipatutako fitxategi automatizatuetan gordetzeko. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko ("ahaztua izateko"), deuseztatzeko, eramateko, mugatzeko edo aurkaratzeko eskubideak erabili nahi izanez gero, datuen tratamenduaren arduradunarengana jo dezakezu: Segurtasun Sailaren Giza Baliabideen Zuzendaritza. Larrauri Mendotxe bidea, 18, 48950 Erandio-Bizkaia. Eskabide honen sinaduraren bidez berariazko baimena ematen dut, datuen tratamendua egiteko.**
ADVERTENCIA: Conforme a la normativa vigente en materia de protección de datos, la Dirección de Recursos Humanos informa y solicita autorización expresa para realizar el tratamiento de datos y la inclusión de los mismos en sus ficheros, siendo utilizados con la única finalidad para la que han sido recabados, así como autorización para solicitar a HABE y a los centros de estudios homologados los datos resultantes del desarrollo y gestión de su proceso de aprendizaje, y a las entidades acreditadoras los resultados de las pruebas de acreditación de niveles de conocimiento de euskera, y que todo ello se incorpore a los ficheros automatizados citados. Los derechos de acceso, rectificación, supresión ("el derecho al olvido"), cancelación, portabilidad, limitación u oposición, pueden ejercitarse ante el/la responsable del tratamiento: Dirección de Recursos Humanos del Departamento de Seguridad, con domicilio en C/ Larrauri Mendotxe bidea, 18, 48950 Erandio-Bizkaia. Sirva la firma de la presente solicitud como consentimiento expreso para el tratamiento de los datos.

## II. ERANSKINA
## ANEXO II

# S452/3 EUSKARA IKASTEKO ESKABIDEA

# SOLICITUD DE SUBVENCIÓN DE MATRÍCULAS S452/3

**III. ERANSKINA**

ANEXO III

## S443/3 IKASTAROA UZTEKO ESKABIDEA

SOLICITUD PARA INTERRUMPIR EL CURSO S443/3

**EUSKO JAURLARITZA** **GOBIERNO VASCO**

**SEGURTASUN SAILA**
Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
*Giza Baliabideen Zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD**
Viceconsejería de Administración y Servicios
*Dirección de Recursos Humanos*

**S443/3**

# IKASTAROA UZTEKO ESKABIDEA
# SOLICITUD PARA INTERRUMPIR EL CURSO

| ***Funtzionarioaren datuak*** *Datos del/de la Funcionario/a* | | ***Espediente zk.*** |
|---|---|---|
| ***Abizenak*** *Apellidos* | | ***Izena*** *Nombre* |
| ***NAN*** *D.N.I.* | ***Zentroa*** *Centro* | ***Langile Identifikazio Zenbakia*** *Nº de Identificación Personal* |

| | | |
|---|---|---|
| ***Uzten duzun ikastaroa*** *Curso que interrumpe* | ☐ ***Lanorduz kanpoko ikastaroa*** / *Curso fuera del horario laboral* | |
| | ☐ ***Lanordu barruko ikastaroa*** *Curso dentro del horario laboral* | ***1. HE prestatzeko*** / *Para preparar el PL1.*<br>☐ ***1. edizioa (apirila-urria artean*** */ entre abril-octubre)*<br>☐ ***2. edizioa (azaroa-apirila artean*** */ entre noviembre-abril)*<br>***2. HE prestatzeko*** / *Para preparar el PL2.*<br>☐ ***Ikastaro trinkoa*** */ curso intensivo (**urria-apirila artean** / entre octubre-abril).* |

| | |
|---|---|
| ***Ikastaroa noiz uzten duzun*** *Fecha de interrupción* | |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| ***Ikastokia*** *Centro estudio* | ☐ *Arkaute* | ☐ *Erandio* | ☐ *Oiartzun* | ☐ ***Beste Bat*** */ Otro:............* |

| | |
|---|---|
| ***Interesatuaren izenpea*** *Firma del interesado/a*<br><br>***Data**/Fecha..............**LZ/NP**...............* | ***Giza Baliabideen Zuzendaritza*** */ Dirección de Recursos Humanos.*<br><br>***Data**/Fecha..............**LZ/NP**...............* |

***Ikastaroa uzteko arrazoia***
*Razon por la que se abandona el curso*

**OHARPENA: Datuen babesaren arloan indarrean dagoen araudiaren arabera, Giza Baliabideen Zuzendaritzak datuen tratamenduaren berri ematen du eta horretarako zein datuak bere fitxategietan sartzeko berariazko baimena eskatzen du; datuak galdetu diren helbururako baino ez dira erabiliko. Halaber, baimena eskatzen du langilearen ikas-prozesuaren garapen eta kudeaketatik eratorritako datuak HABEri zein ikasketa-zentro homologatuei eskatzeko, eta euskararen gaitasun-mailak egiaztatzeko proben emaitzak erakunde egiaztatzaileei eskatzeko eta horiek guztiak aipatutako fitxategi automatizatuetan gordetzeko. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko ("ahaztua izateko"), deuseztatzeko, eramateko, mugatzeko edo aurkaratzeko eskubideak erabili nahi izanez gero, datuen tratamenduaren arduradunarengana jo dezakezu: Segurtasun Sailaren Giza Baliabideen Zuzendaritza. Larrauri Mendotxe bidea, 18, 48950 Erandio-Bizkaia. Eskabide honen sinaduraren bidez berariazko baimena ematen dut, datuen tratamendua egiteko.**
ADVERTENCIA: Conforme a la normativa vigente en materia de protección de datos, la Dirección de Recursos Humanos informa y solicita autorización expresa para realizar /lael tratamiento de datos y la inclusión de los mismos en sus ficheros, siendo utilizados con la única finalidad para la que han sido recabados, así como autorización para solicitar a HABE y a los centros de estudios homologados los datos resultantes del desarrollo y gestión de su proceso de aprendizaje, y a las entidades acreditadoras los resultados de las pruebas de acreditación de niveles de conocimiento de euskera, y que todo ello se incorpore a los ficheros automatizados citados. Los derechos de acceso, rectificación, supresión ("el derecho al olvido"), cancelación, portabilidad, limitación u oposición, pueden ejercitarse ante el/la responsable del tratamiento: Dirección de Recursos Humanos del Departamento de Seguridad, con domicilio en C/ Larrauri Mendotxe bidea, 18, 48950 Erandio-Bizkaia. Sirva la firma de la presente solicitud como consentimiento expreso para el tratamiento de los datos.